



Fitxa teknikoa LARRE-BUZTANIKARA

Espezia: *Motacilla flava*


Familia: Motazilidoak

Ordena: Paseriformeak

Klasea: Hegaztiak

# Larre-buztanikara, intsektujale liraina

Testua eta argazkiak: **J. R. Aihartza**



**S**eguru asko Afrikako belardi zabaletan sortua, eta egun ia mundu osoan zehar barreiatuak dagoen taldea dugu txirta eta buztanikarek osotzen duten motazili-doen familia. Bertako espezie guztiak eremu zabaletako intsektujaleak dira, eta habitat egokia aurki dezaketen eskualde guztietan zabaldua daude, muturreko baldintza klimatikoak mugatzaile gertatzen zaizkien lekuetan izan ezik (Arktiarrean eta Antarktiketan esaterako).

Txirtak ez bezala, buztanikarak lumaje deigarriko txoriak dira, eta bereziki larre hezeak, eta aintzira eta ibaien ertzetako eremuak aukeratzeko dituzte bizilekutzat. Hauetariko askok bestalde, Afrika eta Asiako eskualde tropikaletan igarotzen dute negua, herrialde epel eta iparretara ugaltasorian soilik hurbiltzen direlarik.

Eta horixe da, hain zuzen, larre-buztanikararen kasua (*Motacilla flava*); txoritxo eder eta lirain hau apirilaren bukaeran edo maiatzeko lehen asteetan iristen baita gurera, txitoak bertan munduratzera. Euskal Herriko beste bi espezieak aldiz, buztanikara zuria (*Motacilla alba*) eta buztanikara horia (*Motacilla cinerea*), bertan bizi dira urte osoan zehar.

Gainerako buztanikara askotan gertatzen den legez, larre-buztanikaren artean ere makina bat subespezie finkatu dituzte adituek, sailkapen horretarako irizpide nagusia lumajearen kolorazioak izan ditzakeen eredu desberdinak direlarik.


Sailkapen honi jarraituz, Euskal Herrian ugaltzen den subespezia *Motacilla flava iberiae* dugu. Bere lumajearen koloreei dagokienez, araldian arrak gris ilunak ditu buru gaina eta garondoa, begi gainean "bekain" itxurako arrasto zuria, eta kolore bereko paparoa ageri dituelarik. Bizkarra eta hegalak berriz, arreak ditu, eta sabelaldea hori bizia. Emea ere antzerakoa da oso, baina txori gehienetan gertatzen den legez, bere koloreak apalagoak izan

ohi dira. Izan ere, ugaltasorian iristen denean, emea arduratuko baita arrautzak txitatzeaz, eta lan horretan ari dela ez dio inolako mesederik egiten janzkera deigarria izateak.

Arrak itxura bizi eta ikusgarria izatearen arrazoia ere ugaltasorian bete beharreko eginbeharrekin loturik dago halaber. Alegia, buztanikararen kantua nahikoa ahula da berez, eta ondorioz, habia egiteko aukeratutako lurraldearen jabetza aldarrikatzean, larre-buztanikara

**Larre-buztanikarak lumaje deigarriko txoriak dira, eta bereziki larre hezeak, eta aintzira eta ibaien ertzetako eremuak aukeratzeko dituzte bizilekutzat.**





**Larre-buztanikarak lurtean egiten du habia, horretarako sustraitxo eta belar ihartuak erabiltzen dituelarik.**

arrek mezu akustikoaz gain ikus-  
mezua ere erabiltzen baitute. Eta  
horretarako bai! Horretarako bapo  
datorkie kolore biziz hornituta ego-  
tea! Bide berean, txori hauen izenak  
adierazten duen buztana behin eta  
berrito astintzeko duten ohitura ere,  
lurrealdearekiko jabegoa iragartzeko  
ikus-mekanisмотzat jo izan du  
zenbait autorek.

Larre-buztanikarak lurtean egi-  
ten du habia, horretarako sustraitxo  
eta belar ihartuak erabiltzen di-  
tuelarik. Habiaren barnealdean bes-  
talde, artilea eta ileak metatzen ditu  
ohantze goxoagoa antolatzen.  
Bertan errundako 5 edo 6 arrautzen  
txitaketa hamahiru egunez luzatzen



da, eta esan bezala, emeari dagokio  
lan hori betetzea. Sasoi horretan  
beraz, arrak jo eta ke aritu beharra  
izaten du ehizean, bere eta bere  
kidearen gosea ase ahal izateko. Eta  
hortxe aritzen da gora eta behera,  
ibilera azkarrez, eta burua eta  
buztana behin eta berrito mugituz.

Ehizean ari dela, sarritan sastra-  
kak, zuhamuska eta zuhaitzak,  
harresiak eta hesoholak erabiltzen  
ditu kokalekutzat, eta harrapakina  
ikusiz gero, hegaldi bizian abiatzen  
da ehizera. Eta lan horretarako bapo  
moldatuta dago, noski. Intsektiboroa  
denez, moko fin eta zorrotza du. Eta  
isats luzea ere animalia-  
ren ehizerako teknikarekin dago lotuta,  
beroni esker eta lema gisara erabiliz,  
larre-buztanikarak intsektu  
dohakabeak airean harrapatu eta  
mokoratzeko sekulako abilezia  
baitu. Sarritan ikusi ahal izango  
dugu larretan, azienden atzetik,  
hauen ibilerak lurretik altzaratzen  
dituen eltxo, euli, sorginorratz, eta  
gainerako intsektu hegalaria-  
rik harrapatzeko prest.

Gurasoek dakarkien bazka pro-  
teinatan joria izanik, txitoak habia  
uzteko gai izango dira hamabi egu-  
netan, eta berehala sekulako apostu  
latzari egin beharko diote aurre. Izan  
ere, abuztuaren erdialderako  
Afrikarako bidaiari luzeari ekin  
beharko baitiote lehenengoz, eta  
horrek sekulako energi eskari latza  
ezarriko die. Larre-buztanikarek bi  
egun t'erdia egiten dituzte hegan  
etengabe, eta lan honi aurre egiteko  
beren pisua bikoiztu egin behar  
izaten dute abiatu aurretik. Gazte  
guztiak ez dira gai izango froga latza  
gainditzeko. Ezta gutxiagorik ere!  
Baina Sahara zeharkatzera iristen  
direnek negu epelaz gozatzeko

aukera izanen dute Afrika tro-  
pikalean, eta udaberria iristean, in-  
darberriturik, berrito itzuliko dira  
beren jaioterrietara belaunaldi berria  
sortzera. Hauetatik ordea, erdia  
baino gutxiago izanen dira bigarren  
aldiz kumatzera iritsiko direnak.  
Larre-buztanikaren kasuan, eta  
gainerako paseriforme gehienetan  
gertatzen den legez, ale helduen  
batezbesteko biziraupena oso motza  
baita, hau ugalkortasun handiaz  
kompentsatzen dutelarik.

Euskal Herrian, larre-buztanika-



**Ehizean ari dela, sarritan sastra-  
kak, zuhamuska eta zuhaitzak, ha-  
rresiak eta hesoholak erabiltzen  
ditu kokalekutzat, eta harrapakina  
ikusiz gero, hegaldi bizian abiatzen  
da ehizatzen.**

ra hegoaldeko eskualdeetan, eta  
kostaldean ugaltzen da batez ere;  
berez espezie honek ez baitu men-  
diararako inolako zaletasunik, eta  
bestalde, bere habitat egoki diren  
larre zabal eta ur-ertzak eskualde  
hauetan baititu ugarien. Mundu-  
mailan berriz, oso banaketa zaba-  
leko txoria dugu, eta habiagile gisara  
ia ipar hemisferio osoan aurki  
daiteke. Alaskaraino ere iristen da  
ugaltzeko sasoiak heltzen denean,  
nahiz eta udazkenarekin batera  
Bering itsasarte zeharkatu eta  
Asiako kideekin biltzen den, negua  
kontinente horretako hegoaldean  
igarotzeko.

